

Bizikidetza egitasmoa Oianguren ikastetxean

Duela hiru urte martxan jarri zen, eta jadanik onurak sumatu ahal dira Ordiziako ikastetxean



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS



■ Hainbat ikasle, Oianguren ikastetxeko gela batean. Bizikidetzaren inguruko sistematizazio maila handia lortzen ari dira ikastetxean: giro hobea eta lasaia.

arazoak denen artean bideratzea.

- Bizikidetzari buruzko ikuspuntua poliki-poliki aldatzea: irakasle guztiek parte hartze-ko kultura sortzea, komunikazioa eta estamentu guztien inplikazioa ardatz nagusitzat hartuta.
- Irakasle guztiek geletan izaten dituzten arazoei aurre egiteko konpromisoa hartzea.
- Gatazka baten aurrean jarraitu beharreko pausoak eta prozedurak definitzea eta sortzea: ikasleei dagozkien arazoak, irakasleenak, gela barrukoak eta atsedendietakoak.
- Estamentu guztien lankidetzaren (guraso, ikasle eta irakasleak) eta euren partaidetza bultzatzea.

Ordiziako Oianguren ikastetxean Bizikidetzako batzordea lanean hasi zenetik hiru ikasturte pasatu dira jadanik. Honako bi ondorio edo emaitza dira nagusi:

- Oro har eta poliki-poliki, ikastetxean gatazkei aurre egiteko beste ikuspegi berritzaileagoa zabaltzen ari dira, eta alde guztien partaidetza eskatzen duen egitura ezartzen ari dira eskolan.
- Pixkanaka, bizikidetzaren inguruko sistematizazio maila handiagoa lortzen ari dira, eta ikastetxean giro hobea eta lasaia izatea.

1999-2000 ikasturtean, zenbait ikaslerekin gatazka dezente zeudela ikusirik, bizikidetzaren inguruan zerbait egin behar zela ikusi zuten Oianguren ikastetxeko arduradunek. Ondorioz, Oianguren Ikastetxeko Zuzendaritza eta Pedagogia Batzordeko kideek Bizikidetzaren batzordea sortzea pentsatu zuten.

Oianguren ikastetxeko DBHko 1. zikloko bi irakasle, DBHko 2. zikloko eta Batxilergoko beste bi irakasle, ikasketak buruak eta orientatzaileak osatzen dute aipatu Bizikidetzaren batzordea.

Bizikidetzaren batzordearen helburu nagusiak honako hauek dira:

- Irakaslea edozein gatazkaren aurrean bakarrik ez sentitzea;

URDANETA EP
Intxausti Plaza z/g.
Tlfnoa.: 943 88 27 80
Fax: 943 16 18 16
012279aa@hezkuntza.net

OIANGUREN BHI
Altamira Auzoa z/g.
Tlfnoa.: 943 88 08 62
Fax: 943 16 41 21
012282aa@hezkuntza.net



ORDIZIAKO ESKOLA PUBLIKOA

Aukeratu zeurea guztiona

HAUR HEZKUNTZA

EDUCACIÓN INFANTIL

Artile lasanja	9 cent.
Artile urdin argia	2 cent.
Artile urdin iluna	3 cent.
Artile turkosa	10 cent.
Artile arrosa	8 cent.
Artile horia	4 cent.
Artile berde argia	5 cent.
Artile berde iluna	6 cent.
Artile moratua	7 cent.
Artile txuria	20 cent.
Artile granatea	5 cent.
Artile gorria	6 cent.


3^{era}kin
proiektu



Urdaneta - Oianguren eskola euskalduna, anitza eta parte hartzea bultzatzen duena da.

Gure hezkuntza proiektua pertsonen heziketa osoan oinarritzen da, bakoitzaren izaera eta egoera kontuan hartuz.

Urdaneta - Oianguren somos una escuela euskaldun, plural y participativa. Nuestro proyecto educativo se basa en la formación integral de las personas adecuándose a la realidad del alumnado.



ZURE SEME-ALABAK, GURE ESKU

Haur Hezkuntzan 2tik 3urteko umeentzako arreta eta banakako zainketerako primeran prestatutako irakasleak daukagu. Ziurrak, ongi hornituta eta haien neurria egokituak instalazioak daude. Beraientzat aproposa den elikadura. DBH-n kalitatean eta ikasle bakoitzaren garapen handiena lortzeko banakako norabidatzean oinarriturik dagoen hezkuntza eskaintzen dugu.



Ansela de Salces, 1 bis • 48007 BILBO
Tlfnoa.: 94 413 24 20 • Faxa: 94 413 24 21
e-mail: ikastola@artxandape.net
www.artxandape.net